ENPLEGUAREN ETA PRESTAKUNTZAREN ARLOKO PROGRAMA MISTOEN BIDEZ IRAUPEN LUZEKO LANGABEEI ETA 45 URTETIK GORAKO LANGABEEI ZUZENDUTAKO IBILBIDE INTEGRALAK ETA PERTSONALIZATUAK MARTXAN JARTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA ARAUTZEKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN AURRERAPENARI DAGOKION AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA.

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS BASES Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA PUESTA EN MARCHA DE ITINERARIOS INTEGRALES Y PERSONALIZADOS, A TRAVÉS DE PROGRAMAS MIXTOS DE EMPLEO-FORMACIÓN, DIRIGIDOS A PERSONAS DESEMPLEADAS DE LARGA DURACIÓN Y PERSONAS DESEMPLEADAS MAYORES DE 45 AÑOS.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizartean berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea, eta, horretarako, zerbitzuak ematen dizkie egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonei. Zeregin horretan, arreta berezia jartzen du tratu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatzen ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatzen, generoaren, dibertsitatearen kudeaketaren eta lankidetza zein garapenaren arloko politiken bidez.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

a.- Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak funtsezko helburu bat du enpleguaren arloan, hain zuzen,

a.- Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación

El objetivo prioritario del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad en materia de empleo, es LOGRAR LA

LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK LANERATU DAITEZEN LORTZEA. Horretarako, enplegagarritasuna sustatzeko jarduketa-ildo batzuk ezarrita dauzka gazteentzat, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat (Lan Berri) eta laneratzea batzuetan enpresaburu autonomoaren edo enpresa txiki kolektiboaren formulak —autoenpleguaren sustapenari lotuak— erabiliz errazagoa eta egingarriagoa (besteren konturako laneratzea baino) duten pertsonentzat.

INSERCIÓN LABORAL DE LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO, y para ello tiene establecidas diferentes líneas de actuación de promoción de la empleabilidad, dirigidas a las personas jóvenes, a las personas con especiales dificultades de inserción Lan Berri, o a las personas para las cuales la inserción es, en algunos casos, más factible y sostenible si se hace mediante fórmulas de empresariado autónomo o de pequeña empresa colectiva, que si se pretende recurrir a la inserción por cuenta ajena, mediante el fomento del autoempleo.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak jarduketa berriak gehitu nahi dizkie jarduketa-ildo horiei, ibilbide integral eta pertsonalizatuak garatzen dituzten programak martxan jartzeko, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programa mistoen bidez. Bi helburu dituzte programa horiek:

A estas líneas de actuación, el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad quiere sumar nuevas actuaciones centradas en la puesta en marcha de programas que desarrollen itinerarios integrales y personalizados a través de programas mixtos de empleo-formación que aborden dos objetivos:

1) Langabetuei enpresen benetako beharrizanei buruzko orientazioa eta prestakuntza eskaintzea.
2) Langabetuen laneratzea sustatzea esperientzia profesionalaren bidez.

1) Orientar y formar a las personas desempleadas en las necesidades reales de las empresas.
2) Favorecer la inserción laboral de las personas desempleadas a través de la experiencia profesional.

Iragan krisi ekonomikoak langabeziara eraman zituen gure Lurraldeko milaka pertsona. Horietako askok, tartean era askotako arrazoi askorengatik, besteak beste adina, prestakuntza eta sexua bezalakoak, ez dute lortu lan-merkatuan berriro sartzea.

La pasada crisis económica abocó al desempleo a miles de personas en nuestro Territorio. Muchas de ellas, por diferentes circunstancias tales como la edad, la formación y el sexo no han logrado volver a reinsertarse en el mercado laboral.

2019ko abenduko langabeziaren datuen arabera langabezian dauden pertsonen % 50ek

Según los datos del desempleo a diciembre de 2019, el 50% de las personas en

urtebete baino gehiago daramate lanik egin gabe, langabezian dauden pertsonen % 52k 45 urte baino gehiago dituzte eta langabeen % 60k oinarrizko prestakuntza egiaztatzen dute. Beraz, argi dago langabezian emandako denbora, pertsonaren adina eta prestakuntza direla langabetu bat kontratatzeko zailtasunean gehien eragiten duten faktoreak.

desempleo lleva más de un año sin trabajar, el 52% de las personas en desempleo tienen más de 45 años y el 60% de las personas desempleadas acreditan una formación básica. Por tanto, el tiempo en el desempleo, la edad y la formación, son los factores que más influyen en la dificultad de contratación de una persona desempleada.

45 urtetik gorakoen eta/edo iraupen luzeko langabetuen kasuetan langabeziaren kronifikazioa saihestea da jorratu beharreko erronka.

Lograr evitar la cronificación en el desempleo de las personas mayores de 45 años y/o desempleadas de larga duración es un reto que es necesario abordar.

Dekretu proiektuaren bidez iraupen luzeko langabeen eta 45 urtetik gorako langabeen enplegagarritasuna bultzatu eta sustatu nahi da.

El proyecto de Decreto pretende dar un impulso y promover la empleabilidad de las personas desempleadas de larga duración y de las personas desempleadas mayores de 45 años.

b.- Testu arauemaile hau onartzeko beharra eta egokiera

b.- Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo

Enplegua bilatzeko orientazio- eta laguntza-neurriak, enpresen beharretara egokitutako prestakuntza eta lanbide-esperientzia funtsezkoak dira langabezia egoeran dauden pertsonen laneratzea lortzeko. Iraupen luzeko langabeen kasuan adierazi diren neurri horiek bereziki garrantzitsuak eta funtsezkoak dira; izan ere, batzuetan, lanbidetik edo lan mundutik kanpo geratzen dira, eta euren gizarte- eta lan-egoera kronifikatzeko arriskua dute.

Las medidas de orientación y apoyo en la búsqueda de empleo, la formación adecuada a las necesidades de las empresas, y la experiencia profesional, son fundamentales para lograr la integración laboral de las personas desempleadas. En el caso de las personas desempleadas de larga duración, estas medidas son especialmente importantes, ya que se encuentran en algunas ocasiones excluidas laboralmente y corren el riesgo de cronificar su situación sociolaboral.

Estatistikek adierazten dutenez kasu askotan pertsona berak hiru egoerak bizi ditu aldi berean, neurri handi batean lan-merkatura itzultzea zailtzen dutenak: adina, hau da, 45

Las estadísticas indican que en muchos casos en una misma persona confluyen las tres situaciones que dificultan en gran medida el retorno al mercado laboral: la

urtetik gorakoa izatea; langabezian emandako denbora; eta prestakuntza. Baina horri guztiari beste faktore bat gehitu behar zaio, emakume izatearena, alegia.

Iraupen luzeko langabeen artean % 59 emakumeak dira. 45 urtetik gorako langabeen artean % 55 emakumeak dira. Eta oinarrizko prestakuntza duten langabeen artean % 51 emakumeak dira. Hau da, zaurgarritasun-egoera eta berriz enplegua lortzeko zailtasun-egoera larriagotu eta areagotu egiten da langabezian dagoen pertsona emakumea bada.

Pertsona horiek lan-merkatuan sar daitezen lortzeko, beharrezkoa da estrategia aldatzea enplegu-politika aktiboetan, arreta eta garrantzia guztia laguntzan eta orientazioan jarrita, hau da, enpresen premiekin eta beharrizanekin bat datorren prestakuntzan eta lan-bizitzara itzultzean, lan-esperientzia erraztuko duten neurrien bidez.

Horregatik guztiagatik, une hauetan komenigarritzat jotzen da Foru Dekretu bidez jarduera-ildo espezifiko bat artikulatzea, enpleguko eta prestakuntzako programa mistoen bidez ibilbide integral eta pertsonalizatuak abiarazteko eta garatzeko iraupen luzeko langabeei eta 45 urtetik gorako langabeei zuzenduta, eta, bereziki, emakumeei.

c.- Arauaren xedea

Araudi honen xedea izango da 2020ko ekitaldirako ibilbide integral eta pertsonalizatuak abiarazteko dirulaguntzen

edad, ser mayor de 45 años; el tiempo en el desempleo; y la formación. Pero a todo esto hay que añadir otro factor, que es el hecho de ser mujer.

Entre las personas desempleadas de larga duración, el 59% son mujeres. Entre las personas desempleadas mayores de 45 años, el 55% son mujeres. Y entre las personas desempleadas con formación básica, el 51% son mujeres. Es decir, la situación de vulnerabilidad y dificultad de acceso al empleo se agrava si la persona en desempleo es mujer.

Para conseguir que estas personas puedan insertarse en el mercado laboral, se hace necesario plantear un cambio de estrategia en las políticas activas de empleo poniendo el foco en el acompañamiento y la orientación, en la formación acorde a las necesidades de las empresas y en el regreso a la vida laboral mediante medidas que faciliten una experiencia laboral.

Por todo ello se considera conveniente articular mediante Decreto Foral una línea de actuación específica que ponga en marcha itinerarios integrales y personalizados, a través de programas mixtos de empleo-formación, dirigidos a las personas desempleadas de larga duración y a las personas desempleadas mayores de 45 años, y con especial atención a las mujeres.

c.- Objeto de la norma

El objeto de la normativa será establecer las bases y convocatoria de subvenciones para puesta en marcha de itinerarios integrales y

oinarriak eta deialdia ezartzea, enpleguko eta prestakuntzako programa mistoen bidez, iraupen luzeko langabeei eta 45 urtetik gorako langabeei zuzenduta egongo direnak.

personalizados, a través de programas mixtos de empleo-formación, dirigidos a las personas desempleadas de larga duración y a las personas desempleadas mayores de 45 años para el ejercicio 2020.

Enpleguaren eta prestakuntzaren arloko programak elementu hauek izango ditu: laguntza eta orientazio integralak; oinarrizko prestakuntza, zeharkakoa eta teknikoa; esperientzia profesionala.

Se realizará un programa de empleo-formación que constará de: acompañamiento. orientación integral intermediación; formación básica, transversal y técnica; y experiencia profesional.

**d.- Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)**

**d.- Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.**

Enplegagarritasuna sustatzeko neurriak bideratzeko dirulaguntzak erabiltzea ohiko prozedura da administrazio publikoetan.

La puesta en marcha de medidas de fomento de la empleabilidad mediante subvenciones es un instrumento comúnmente utilizado por las administraciones públicas.

Testuinguru horretan, iraupen luzeko pertsona langabeen eta 45 urtetik gorako pertsona langabeen enplegagarritasuna sustatzeko dirulaguntzen programa nitxo edo jarduteko esparru jakin bat hartzen duen enplegagarritasuna sustatzeko tresnen artean planteatzen da.

En este contexto el programa de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de las personas desempleadas de larga duración y de las personas desempleadas mayores de 45 años, se plantea como un programa que ocupa un nicho concreto entre los instrumentos de promoción de la empleabilidad.

**e.- Arau-proposamenak ukitutako xede-taldeak, zeinei zuzendu behar zaien**

**e.- Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir**

Araudia enpresen elkarteei, Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileei, elkargo profesionalei eta Bizkaiko irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuei zuzenduta dago, baldin eta

Las entidades a las que va dirigida la normativa son las Asociaciones Empresariales, las Organizaciones dinamizadoras de clústeres de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los

enpleguaren eta prestakuntzaren arloetako programa mistoetan esperientzia egiaztatua dutela egiaztatzen badute.

Colegios profesionales y otras Entidades sin ánimo de lucro de Bizkaia que acrediten una experiencia contrastada en programas mixtos de empleo-formación.